

Nafarroak bronkiolitisaren kausa nagusia den arnas birus sinzitalaren aurkako immunizazio kanpaina hasi du irailaren 1etik urtarrilaren 31ra bitartean jaiotzen diren haurtxo guztientzat


NOPLOik nabarmendu duenez aurreko denboraldian immunizazioaren eraginkortasuna %88,7koa izan zen, eta kalkuluaren arabera, 77 ospitaleratze saihestu ziren

Astelehena, 2024ko Irailaren 2a



Nafarroak denboraldi honetako arnas birus sinzitalaren aurkako immunizazio kanpaina hasi du 2024ko irailaren 1etik 2025eko urtarrilaren 31ra bitartean jaiotzen diren haurtentzat – 2.200 inguru, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) egindako kalkuluaren arabera –. Hala ere, egoera epidemiologikoaren arabera, immunizazioa 2025eko otsailean jaiotakoetara hedatzea baloratuko da.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).

 2.200 haurtxori txertoa jartzea aurreikusi da.